Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2556

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 16koa, Unibertsitateetako zuzendariarena, prozedura amaitutzat ematen duena eta 2009-2010 ikasturtean unibertsitate ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko izaera orokorreko beketarako deia egiten duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko ekainaren 23ko Aginduaren arabera, beka jaso duten edota ez duten ikasleen zerrendak argitaratzen dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2009ko ekainaren 23ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza duten eta 2009-2010 ikasturtean unibertsitate ikasketak edo goi-mailako beste ikasketa batzuk egiten dituzten ikasleentzako izaera orokorreko beketarako deia egin zuen.

Goian azaldutako aginduaren I. eranskinaren 49. artikuluari jarraituz eta eranskin horren 45., 46., 47. eta 48. artikuluetan adierazitakoa egin denez, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2009-2010 ikasturteko bekak emateko behin-behineko ebazpenak behin-betiko egitea.

Bigarrena.– Ebazpen hau eta beka jaso dutenen eta ez dutenen zerrendak dagokien unibertsitateetan jendaurrean azaltzeko agintzea. Zerrenda horiek jendaurrean egongo dira beka-kudeaketarako atalean maiatzaren 21etik ekainaren 1era. Zerrenda horietan agertzen ez direnen eskabideak ez direla onartu ulertu behar dugu.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen. Horren aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute beren eskubideak zapuztu direla uste duten beka-eskatzaileek Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen aurrean ekainaren 2a eta uztailaren 1a bitartean. Errekurtsoa norberaren Unibertsitateko beka-kudeaketarako atalean aurkeztu behar da.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 16a.

Unibertsitateetako zuzendaria,
ZURIÑE GÓMEZ DE BALUGERA LÓPEZ DE ALDA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2556

RESOLUCIÓN de 16 de abril de 2010, de la Directora de Universidades, por la que se da por finalizado el procedimiento y se dispone la publicación de los listados de alumnos a los que les ha sido concedida o denegada beca al amparo de la Orden de 23 de junio de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan becas de carácter general, para realizar estudios universitarios y otros estudios superiores, en el año académico 2009-2010.

Por Orden de 23 de junio de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, se convocaron becas de carácter general para alumnos vecinos de la Comunidad Autónoma del País Vasco que realizan estudios universitarios o superiores durante el curso 2009-2010.

De conformidad con lo establecido en el artículo 49 del anexo I de la Orden de convocatoria arriba indicada y habiéndose procedido a lo señalado en los artículos 45, 46, 47 y 48 del citado anexo de convocatoria.

RESUELVO:

Primero.– Elevar a definitivas las resoluciones provisionales de concesión de beca para el curso 2009-2010.

Segundo.– Ordenar la publicación en las Universidades respectivas, de esta Resolución y de los listados de solicitantes a los que se ha concedido o denegado la beca. Estos listados quedarán expuestos al público en las unidades de gestión de becas entre los días 21 de mayo y 1 de junio. Las solicitudes que no figuren en los mismos se entenderán desestimadas.

Tercero.– Contra esta Resolución, que no agota la vía administrativa, los solicitantes de beca que consideren lesionados sus derechos podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Universidades e Investigación entre los días 2 de junio y 1 de julio, que deberá ser presentado en la unidad de gestión de becas de su Universidad.

Cuarto.– Ordenar la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2010.

La Directora de Universidades,
ZURIÑE GÓMEZ DE BALUGERA LÓPEZ DE ALDA.